

2002KO IRAILAREN 19KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko irailaren hemeretziaren, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakartzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Joseba Hernandez Madinabeitia eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Serna zinegotzia bertarutzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta Amundarain zinegotziak (EH) galdetzen du ea beraien interbentzioak Batasunaren izenean egiten jarraitu dezaketen jakin nahiko luketela.

Alkateak erantzuten dio ez duela inolako eragozpenik ikusten horrela jarraitzeko.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutako onespenera aurkezten da 2002ko uztailaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Serna zinegotzia bertaratu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- SAN JOSEKO BERRURBANIZAZIO OBRAREN LEHEN ZERTIFIKAZIOA.-

San Joseko Berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman INJELAN, S.L. enpresako Iñaki Laskurain Gisasola ingeniarioak lanen lehen zertifikazioa aurkeztu du. Lehen zertifikazio hau BERREHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMOtakoa (261.369,46 €) da.

Zertifikazioa aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, berau onartzea erabakitzen du.

...///...

IV.- 2001EKO KONTU OROKORRA.-

2001 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aztertu eta informatua izan zen 2002ko ekainaren 18an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2002ko uztailaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera orain sartu berria dela eta alde edo aurka botatzeko kontu hoiei buruzko nahiko ezaguerarik ez duela eta abstenitu egingo dela.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), 2001 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

V.- GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.KO AKZIOEN SALMENTA.-

Ordiziako Industrialdea, S.A.k Lazkao Industri Lurra, S.A. elkarteak absorbitu eta bat-egitea egin ondoren elkarteari izena aldatu zitzaion orain Goierri Beheko Industrialdea, S.A. izena duelarik.

Elkarte honen helburua Goierriko herri guztiek parte hartzea izaki, hauen partaidetza Goierri Beheko Industrialdea, S.A. elkartearen Ordiziako eta Lazkaoko Udalek dituzten partaidetzen salmentetatik egingo liratekela adostu zen.

Lazkaoko Udalak, Goierriko Industrialdea, S.A.n parte hartu eta Alkateak kapitalaren zati bat Goierriko beste udalerri batzuei saltzeko konpromisoa hartu ahal zezan, Osoko Bilkurak egindako 2001eko urtarrilaren 25eko batzaraldian hartu zuen akordioa.

Elkarte horretan bi akzio mota bereizi ziren, bata, udalerriek jarri beharreko kapitalaren % 35, udal guztiek jarriko luketena, bakoitzak bere biztanlegoaren arabera kalkulaturako kopuruan, eta bestea, udalerriek jarri beharreko kapitalaren % 65a, industri garapenak egin behar dituzten udalerriek jarriko luketena.

Illo horretatik, eta Zegamako Udalak industri gune bat garatzen ari denez, udalerri honen Goierri Beheko Industrialdea, S.A. elkarteak akzioen erosketa planteatzen da eta Lazkaoko udalari Zegamak erosiko duen akzio kopuru bat sal dezan eskatzen zaio. Lazkaoko Udalak salduko lizkiokeen akzioen zenbatekoa lau mila zazpirehun eta laurogeita zazpikoa (4.787) izango litzateke eta akzio bakoitzaren prezioa bederatzi euro eta hogeitazentimotakoa (9,20 €), hau da, guztira berrogeita lau mila eta berrogeitazentimo (44.040,40 €). Prezio hau Ordiziako Industrialdea, S.A. eta Lazkao Industria Lurra, S.A. bat egin zirenean akzioaren balio teorikotzat emandako balio bera da eta bestalde Ordiziako Udalak ere, 2002ko apirilaren 25ean hartutako akordioan Zegamako Udalari egin dion akzioen salmentan erabilitako prezioa da.

Hau horrela, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

...///...

...///...

1.- Goierri Beheko Industrialdea, S.A. elkartean Udal honek dituen akzio guztietatik 4.787 akzio saltzea, akzio bakoitzeko 9,20 €ko prezioan, guztira berrogeita lau mila eta berrogeita lau euro eta berrogei zentimo (44.040,40 €) direlarik.

2.- Goierri Beheko Industrialdea, S.A. elkartearen estatutuen 9. artikularen arabera, aurreko puntuan erabakitako eskualdaketa egin baino lehen, elkarteko administrazio organoari eskaintza egitea, erosterakoan lehentasuna izan dezan.

3.- Erabaki hau betetzeko behar diren agiri guztiak gauzatzeko alkatea eskubideratzea.

VI.- HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAKO EGITASMO INTEGRALAREN ABANTZEA.-

“Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorraren Aurrerapen Dokumentua”ren inguruan Sasieta Mankomunitateko Presidenteak Sasietako Batzorde Errektoreak egingo duen bilkuran onesteko egiten dituen proposamenak ondorengo hauek dira eta aurrez Osoko Bilkura honetara ekartzen dira, udal honek proposamen hauek onartzen dituan ala ez erabaki dezan. Proposamenak honako hauek dira:

1. PROPOSAMENA:

“Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorraren Arurerapena” onestea.

2. PROPOSAMENA:

Aipatutako Plan Orokorrean proposatutako helburuak gauzatzeko mankomunitate honek Gipuzkoako Foru Aldundiari bere lankidetzara osoa eskainiko diola adieraztea.

3. PROPOSAMENA:

Aipatutako Plan Orokorrean aurrikusitako gestio hautabide ezberdinen aurrean, Sasieta Mankomunitateak “3. Hautabide multzoaren (3.1., 3.2. eta 3.3. Hautabideen) alde apustu egiten du, beste beste, honako arrazoi hauengatik:

- a) “3.1., 3.2. eta 3.3. Hautabideek” ingurugiroaren babes maila altua ziurtatu eta garapen eramangarriaren printzipioak zein indarrean dagoen araudiaren esijentziak betetzen dituztelako.
- b) Sortutako hondakinekiko “hondakin sekundario” gutxiago botatzen direlako.
- c) Hondakin “primarioen” eta “sekundarioen” manipulazio-ratioa txikiagoa delako eta beraz, sistemaren eraginkortasuna handiagoa.
- d) Kostu ekonomiko txikiagoa delako.

Mankomunitate honen ustetan, aipatutako hiru hautabideetako (3.1., 3.2. eta 3.3.) edozein izan daiteke baliagarri, izan ere, energia berreskuratzeko errauskailu (EBE) kopurua handiagoa edo txikiagoa izanagatik, Planaren printzipio estrategikoei, herritarrek jasoko duten zerbitzu kalitateari, ingurugiroaren babes mailari, indarrean dagoen araudiaren esijentzien betetzen mailari eta garapen eramangarriaren printzipioei ez baitie afektatzen. Beraz, mankomunitatea hiru proposamen hauetako edozeini irekia dago. Azkenean, hiru hauen artean Sasieta Mankomunitateak onetsiko duen proposamena, mankomunitate guztien artean adostutakoa baino ez da izango.

4. PROPOSAMENA:

...///...

...///...

Gipuzkoako Lurraldeko ezugarri orografikoak direla eta, hondakinen garraioak eragin ekonomikoa handia du, zenbat eta zentralizatuagoa izan tratamendu-azpiegitura, orduan eta eragin handiagoa. Hala nola, urruneko mankomunitateen kasuan (Debagoiena eta Debabarrena) sistemaren kostuaren %35era iritsi daiteke. Horregatik, Sasieta Mankomunitateak hondakinen garraioaren kostua tratamendu-azpiegitura berbera erabiltzen duten guztien artean modu "solidarioan" banatzea proposatzen du. Modu horretan garraioaren kostua, altua izanik, %25ekoa izatera iritsiko litzateke eta mankomunitate guztientzat berbera.

5. PROPOSAMENA:

Planaren kostu ekonomikoa dela eta, "kutsatzen duenak ordaindu egin behar du" izeneko printzipiopean, zabor tasen igoeratik lortu daitekeen finantzaketaz gain, mankomunitate honek Gipuzkoako Foru Aldundiari finantzaketa gehigarri bat eskatu nahi dio, Gipuzkoa lurralde osorako berdina eta azkenean adosten den gestio hautabidearen baitan (3.1., 3.2. edo 3.3.) egongo ez litzatekeena.

6. PROPOSAMENA:

Sasieta mankomunitatearen ustetan Plan Orokorrean aurrikusitako zenbait tratamendu azpiegitura (energia berreskuratzeko errauskailuak, konpost plantak etab.) eraiki eta ustiatzeko gestio erakunde bat, erabat publikoa, behar da, gaur egun ez dagoena, hondakinen konpetentzia duten mankomunitate guztien artean osatua eta hala erabakiz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partehartzearekin.

Planteamendu hau adostasun bidez gauzatu beharko litzatekeela iruditzen zaigu eta horretarako, Plana onartu bezain pronto, mankomunitate guztiok azterketa eta hausnarketarako epe bat ireki beharko genuke. Hausnarketa guneretatik eskatu eta adostuko genituzke beharrezkotzat jotzen diren kanpoko laguntza eta aholkulariak azkenean formula juridikorik egokiena topatzeko.

7. PROPOSAMENA:

Azkenik, eta Sasieta zaborteziaren isteko dataren arabera (2009ko uztailak 16), mankomunitate honek, gehienez, 2 urtetako epea finkatzea erabaki du Plan Orokorrearen inguruan adostasun bat lortu eta adostutakoari ekiteko.

Adostasunik lortuko ez balitz edota, lortuta ere, aipatutako epean gauzatuko ez balitz, mankomunitate honek bere eskumeneko erabakiak hartuko ditu bere gestio eremuan sortutako hondakinei irtenbide bat emateko, beste mankomunitateetatik (Debagoienatik eta Tolosaldeatik) datozkeen hiri hondakinak Sasieta zaborteziaren botatzea murrizteko erabakia barne delarik.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du beraiek abstenitu egingo direla ondorengo arrazoi hauengatik: lehenengo galdetzen du ea proposamen hau onartzeak hirugarren hautabide multzotik bat aukeratzea suposatzen al duen ala hirugarren multzoaren aukera egiten da soilik.

Alkateak erantzuten dio Sasietatik egiten den proposamenak hirugarren multzoaren aldeko proposamena dela soilik, hirugarren multzoko hiru aukeren arteko hautabidea berunduagoko gauza izango delarik.

...///...

...///...

Irastortza zinegotziak esaten du beraiek eskatzen dutela informazio guztia izan arte orain aukeratzen den hautabidearekin beste bi hautabideak ez ixtea. Gaineratzen du badakitela zazpi hautabideetako edozeinek ere kostu igoera handia ekarriko duela, lehen ere zerga igoeren aurka egon direla eta kostu guzti hori maila handi batean herritarrek jasan beharko dutela eta hori ere ez dutela oso garbi ikusten; esaten du baita ere badakitela prozesua aurrera joan beharrean dagoela eta abantzea joango dela baina jakin arazi nahi dutela bere garaian kostu horren zati handiena herritarren gain joatearen aurka azalduko direla; esaten du baita ere gai hau Euskal Herriko beste eskualde batzuetan ere erantzun handia jaso duena izan dela, manifestazio eta abarrekin, eta gaia sakonean aztertu beharrekoa dela, herriz herri, eta ikusten denez Europatik inzineradoraz kanpo beste irtenbiderik ez da ematen baina inor ez du nahi inzineradorarik bere herrian, ba hori gai honek azterketa sakonagoa behar duela eta kontzientziazioa. Bukatzen du esanez guzti horregatik abstenitu egingo direla.

Alkateak EHkoei erantzunez esaten du alde batetik, lehen esan duen bezala, hirugarren multzoa dela Sasietatik orain aukeratzea proposatzen den hautabidea eta kostu aldetik beste edozein hautabidek kostu dexente handiagoak sortuko lituzkela; esaten du baita ere egia dela kostu igoera oso garrantzitsuak izango direla baina azken finean kontua dela zaborrei tratamendu bat eman beharra dagoela, tratamendu hoiek era batera edo bestera kostu bat suposatzen dutela eta behar bada gu geu izan beharko genukeela zaborra sortzeak zer suposatzen duen kontzientziazitzen, zaborra sortzea erraza dela ez garelako konsziente horrek gero ondorioz izan ez dezan zer kostu behar duen; inzineradorari buruz esaten du egia dela informazioa ondo banatu behar dela eta Sasieta ere hortaz jabetuta dagoela uste duela eta hortan ahalegin berezia egingo duela. Gaineratzen du ez duela uste inongo daturik gabe inzineradora oso ona dela esan behar denik baina aldi berean inolako daturik gabe ez dela esan behar inzineradora oso txarra denik.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko sei botu (EAJ, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta hiru abstentzioz (EH), Sasietak egindako proposamenak onartzea erabakitzen du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak, Irastortza zinegotziaren (EH) eskariz, udaltzain agente-mantenimendu eta obretako brigadako operari plaza betetzeko hautaketa prozesuaren azken fasean gertatutakoaren berri ematen du. Esaten du lehiaketa-oposizio fasea gaingitu zuen pertsona Xabier Razkin Senar izaki eta bera praktiketako funtzionario izendatua izan ondoren, pertsona honek Euskal Autonomi Erkidegoko Polizia Ikastegiko trebakuntza ikastaroa egin zuela, Arkauten, eta ikastaroa ez duela gaingitu. Horregatik eta hautaketa prozesuaren oinarrietan plazara heltzeko izangaiak trebakuntza ikastaroaren gaingitu beharra xedatzen denez, deialdia hutsik geratu dela ebatzi da. Gaineratzen du, lehen esan den bezala, lehiaketa-oposizio fasea gaingitu zuen bakarra Xabier Razkin Senar izaki eta bestalde praktiketako funtzionario bezala egon den bitartean Udalean egin duen lana, bai udaltzain izaeran dagokionez bai brigadako operari izaeran, oso ona izan den, Pertsonaleko Batzordean informatu ondoren, plaza horretan denboraldiko funtzionario bezala bere izendapena egin da.

Irastortza zinegotziak Hazienda eta Pertsonal Batzordeko deialdiak EH taldeari dagokionez, bera eta Angel Etxalari egiteko eskatzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

...///...

...///...

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...